Errealitateak, berriro ere, motz uzten duen «karikatura groteskoa»

Arauak betearazi nahi dituen jubilatu alemana du protagonista umore beltz eta absurdotik asko duen 'Düsseldorfeko txibatoa' eleberriak

JON AGIRRE



Linazasoro 'Düsseldorfeko txibatoa' liburuarekin. LOBO ALTUNA

DONOSTIA. Kaletik oinez doala auto baten atzeko gurpila espaloian ikusi eta asaldatzen den Karl-ek irekitzen eta gorpuzten du Karlos Linazasororen 'Düsseldorfeko txibatoa' (Erein). Alemaniarra jaiotzez, gaixotasun bat du eta jubilatu ostean Espainiako hegoaldera mugitu da medikuak hezetasun gutxiagoko klima egokiago bat gomendatuta. Agerraldian azaldu zuenez, benetako pertsona batean oinarritu du. Hark sei urtean 30.000 isun jarri zituen herrian kaosa sortuz. «Ezin izan zituzten guztiak kudeatu, jarri izan banuen 30.000 isun jarri zituela irakurleak ez zen sinetsiko». Azaldu zuenez, errealitateak fikzioa superatzen duela erakusteko ariketa izan da.

Hartarako erabili ditu umore beltza, nahiz eta maiz absurdotik ere baduen, ironia eta, batez ere «karikatura groteskoa». Alemaniarrak oso antolatuak eta Espainia hegoaldekoakaldiz, lasaiegiak edo utziegiak Talkaz irakurleari barrea sortzeko, baina aldi berean Karl «gizon obsesibo eta neurotikoa» denaren sentsazioa utziz. «Batek ez daki barre egin ala ospitalera deitu», bota zuten.

Inazio Mujika Ereingo kideak «Sherlock Holmes eta Mr. Bean arteko pertsonaia» bezala definitu zuen Karl, «agian pixka bat kutreagoa edo kaxkarragoa». «Tipo oso serioa eta bere burua oso seriotzat dauka, bere bizitzako helburua legea zaintzea da», gehitu zuen. Horrek, noski, zenbait arazo ekarriko dizkio, dela herrikideen presioa zein alkatearena. «Baina salbatzaile lanean jarraituko du», aurreratu zuten.

DÜSSELDORFEKO TXIBATOA
KARLOS LINAZASORO

Argitaletxea: Erein.
Estiloa: Narratiba, 160.
Orrialdeak: 104.
Prezioa: 18,50 euro.

Satira eta parodia

Satira ez da protagonistara mugatzen, eleberri osoa halakoa baita, «esperimentuaren eta parodiaren arteko nahasketa». Irakurleak Karlen ahotik, lehen pertsonan, jasoko ditu haren «kexa eta obsesioak», nolabait guztiok barnean 24 orduz lanean dugun kontzientzia simulatuz. Diskurtso hori, gainera, «azkarra eta obsesiboa» da, «kexaz betea eta errepikakorra». Denok inguruan dugun norbait orotuko omen digu. Era horretara biderkatzen da aipatutako ispiluaren aurrean jarriko gaituenaren sentsazioa. Liburua irekitzen duena bezalako egoera arruntenak ditu mintzagai: uraren zapore txarra, manifestazio bat... «Apokalipsi txikiak» harentzat. Linazasorok gehitu zuenez «bere buru kartesianoak ezin du eraman ikusten duen utzikeria».

Mujikak esan bezala 1991n 'Eldarnioak' ipuin-bildumarekin literaturan hasi zenetik «genero guztiak» ukitu ditu «ibilbide luze bezain sendoa» eginez. Azkenarekin ohiko prozedura jarraitu du: «Nire burua lasai uzteko idazten dut. Generoak txandakatzea gustatzen zait, zerikusi handia du nire egoera psikologikoarekin».

CRÍTICA DE MÚSICA
J.L. ETXEBERRIA

Descarada juventud

Labar, Saguxar
Lugar: Sala Kutxa Fundazioa (Donostia-San Sebastián). Día: 03-10-2025. Asistencia: 25 personas. Precio: 8 euros.

En la sabrosa cita del ciclo 'Gipuzkoako Ahotsak' pudimos disfrutar de las desvergonzadas maneras de las nuevas bandas. Saguxar fue envolvente, con efectos que acolchaban sus breves canciones. Música calmada que abrazaba el shoegaze y las maravillas de Elisabeth Fraser. Salió indemne de la versión de Massive Attack, destacó a capela y demostró un presente gozoso.

Labar practicó el trap transfeminista. Su espectáculo fue fresco y directo lanzándose a la cumbia, el punk, la 'euskal kanta', el hip hop o el pop de Zetak con mensajes contestatarios. Un set breve muy divertido y orgulloso que el tiempo profesionalizará.

lideresconproposito.vocento.com

#ForoLíderesConPropósito

II FORO LÍDERES CON PROPÓSITO

Un proyecto de vocento

Un espacio de diálogo y reflexión en el que **destacados pensadores humanistas, científicos y CEOs** de las compañías pertenecientes a la comunidad de Líderes con Propósito hablarán sobre la **importancia del concepto 'humanismo'** como antídoto ético y estratégico para las organizaciones en tiempos dominados por la automatización y la IA. **¡Apúntate ya!**

8/10/25
Fundación Francisco Giner de los Ríos
P.º Gral. Mtnez. Campos, 14. Madrid

REGÍSTRATE

CEU · Deloitte. · ecoembes · IBERIA · ISDIN LOVE YOUR SKIN · ISS · L'ORÉAL GROUPE · NOVARTIS · Santander · salesforce · TENDAM